

## **Balorezko proposamena**

Ideiak proposatzeko orduan, gure proiektu hau sortzeko, taldekideok oinarrizko bi galdera garrantzitsu aztertu genituen.

**Lehenengo galdera:** Zer zerbitzu eman dezakegu kostu txikiak edukitzeko eta jendearentzat guztiz dohainekoa izateko? .

**Bigarren galdera:** Zer beharrian edukiko genituzke 3.adineko jendea izango bagina eta zer motatako laguntza eskatuko genuke?.

Lehenengo galdera honi erantzun eta gero gure zerbitzua 3.adineko jendeari laguntzea izango zela erabaki genuen, jubilatuta dauden pertsoneri. Hasiera batean hemen zentratuko gara baina etorkizun batean beharrian bereziak dituzten kolektiboari laguntzea ere ikusten ari gara.

Hau guztia aztertu eta gero, ikusi genuen ideia bikaina zela zerbitzu bat ematea non 3. adineko jendeak etxetik kanpora egin behar dituzten beharrezko erosketak guk geuk egin eta beraien etxeetara eramatea.

Proiektu honen beharra are gehiago indartzen da inkesta eta lan zientifiko batzuen emaitzak ikusita. Inkesta hauen arabera, hirugarren adineko pertsonen % 70 zailtasunak dituzte supermerkatuan produktuak aurkitzeko.



Gure enpresa beste enpresekiko desberdintasun batzuk ditu **ala nola guztiz doakoa dela bezeroentzat**. Kontutan hartu behar da boluntariok

astero egingo ditugun orduak ezer ezen truke egingo ditugula eta gure helburua 3 .adineko jendearen poza izango dela gure irabazia.

Emango dugun zerbitzu honekin erosketak egiteaz gain, etxeko aterarte eramango ditugu erosketak, eta oso garrantzitsua den gauza bat, bolumen txikiko erosketetan **ez dugu ez kotxerik ez zerbitzu publikorik erabiliko, bakarrik oinez edo bizikletaz joango gara gure bezeroen etxeetara.** Bolumen handiko erosketak izatearen kasuan, **garraio publikoak erabiliko ditugu, gure beste helburuetako bat ingurumena ahalik eta gutxien kutsatzea delako.**

